

ZISJORDANIAKO MARRAZAINA

Hanine Abou Mariam, Jerusalem eta Ramallah artean partidak arbitratzen dituen emakume palestinarra

Kamiseta fluo-
reszentea jan-
tzita eta beso-
an Palestinako
bandera txiki
bat duela, Ha-
nine Abou Mariam Jerusalem
eta Ramallah arteko Zisjorda-
niako Al Ram hiriko kantxa
sintetikoaren alboetako bate-
an korrika dabil. 21 urteko gaz-
te hau emakumezkoen lehen
mailan eta gizonezkoen hiru-
garren mailan partidak arbi-
tratzen dituzten bi emakume-
etako bat da, erresistentziaren
eta ahalduntzearen sinbolo.

Palestinako borroka nazio-
nalean emakumeen parte-har-
tzea aspaldikoa dela esan dai-
teke. Mediterraneo itsasoaren
eta Jordan ibaiaren haranaren
arteko lurraldearen erresisten-

 **KIROLA** / Ibai Azparren

Hanine Abou Mariam palestinarri unibertsitatean Heziketa Fisikoko ikasketak hasi zituenean piztu zitzaion arbitrajearekiko interesa. Lizentziatu ondoren, emakumezkoen lehen mailan eta gizonezkoen hirugarren mailan futbol partidak arbitratzen dituzten bi emakumeetako bat da orain.

tziaren aurpegi asko emaku-
mezkoenak dira. Menderatze
eta zapalkuntza nazionala, pa-
triarkala eta klasekoa eragiten
duen sistema baten pean bizi
diren emakumeenak. Esparru
pribatuko matxismoaren aur-
ka borrokatzeaz gain, emaku-
meen erresistentzia tradizio-
nalki baztertu izan dituen
eremu publikora ere hedatu
da, eta Mariamek egin duen

Hanin Abu Mariam
palestinarra, 21 urteko
epailea, bere lankideekin
eta jokalariekin batera
zelairatzen,
Zisjordanian Al Ram
hiriko Faisal al-Husseini
Nazioarteko Estadioan
jokatu zen futbol
partidan arbitratzeko.
Abbas MOMANI / AFP

bezala, espazio horiek ere kon-
kistatuz doaz.

Duela hiru urte gizonezkoen
futbol partidan arbitro lanak
egin zituenean, porrot egitea-
ren beldurra nagusitu zitzaio-
la aitortu dio AFP agentziari.
Emakumea, palestinarra eta
epailea, zale zein jokalarien in-
potentziaren itu eta, Eduardo
Galeano parafraseatuz, akats
guztien koartada, zorigaitz
guztien azalpen. Baina beldur
horiek bide eman zioten na-
zioarteko arbitro diren palesti-
nar emakume gutxietako bat
izateko anbizioari.

Mariami unibertsitatean He-
ziketa Fisikoko ikasketak hasi
zituenean piztu zitzaion fut-
bolarekiko interesa. Horrekin
batera, arbitrajera grina er-
natu zitzaion. Behin lizentzia-

tuta, futbol partidak arbitra-
tzen hasi zen, marrazain lane-
tan. «Hasieran huts egiteko
beldur nintzen, baina epaile
nagusiak eta gizonezko kideek
lagundu egin zidaten», azaldu
du gazteak. Partida bakoitza-
ren aurretik, berak adi-adi en-
tzuten dio epaile nagusiari, jo-
koaren kontsignak libreta
batean marraztu ahala. 90 mi-
nutuz, baloia begiekin jarrai-
tzen du, bandera gorriari eta
horiari gogor eutsiz.

Mariamek hilean zazpi bat
partidatan parte hartzen du
eta 30 dolar inguru jasotzen
ditu norgehiagoka bakoitzeko
(24 euro inguru), bere taldeki-
de gizonezkoen kopuru bera.
Duela lau bat urte, Palestinako
federazioak emakumeen arbi-
trajea baimendu zuen. Kleriko



Mariamek hilean zazpi bat partidatan parte hartzen du eta 30 dolar inguru jasotzen ditu norgehiagoka bakoitzeko (24 euro inguru), bere taldekide gizonezkoen kopuru bera

Beste 30 emakume Mariamen pausoei jarraitzeko prestakuntza jasotzen ari dira Palestinan. Duela lau bat urte, federazioak emakumeen arbitrajea baimendu zuen

kontserbadore batzuk emakumeentzako irekiera horren aurka agertu ziren hasieran, baina jardunaldi eta urteek aurrrera egin ahala kontrako ahotsak itzaltzen joan dira.

Nolanahi ere, Haninek bere familiaren babesa izan zuen. Ramallahetik gertu dagoen Burham herri txikian bizi dira. «Nire senideek beti lagundu eta babestu naute, beraiegatik nago gaur hemen», azaldu du gazteak, eta badirudi Palestinako futboleko buruzagien babesa ere baduela. «Bai, noski, konfiantza osoa dugu haiengan; emakumeak gaituta daude», azpimarratu du Ibrahim Ghrouf Palestinako futbol federazioko arbitrajearen arduradunak, eta beste 30 emakume Mariamen pausoei

jarraitzeko prestakuntza jasotzen ari direla zehaztu du.

Horientzat guztientzat, istorio honetako protagonista barge, Hiba Saadia da duda gabe inspirazio iturri, emakumeen nazioarteko topaketak antolatu zituen lehen palestinarra, egun Arabiar Emirerri Batuetan bizi dena. Baita Yasmine Nirokhek ere, egun nazioarteko txapelketak zuzentzen dituen. Halere, haien izenak Interneten bilatuz gero, AFPk Mariami buruz duen informazioan baino ez dira agertzen.

Kirola egitea eskubidetzat hartzen du Hezkuntza, Zien-

tzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (Unesco), baina emakume askok zapuztu egin behar izan dute profesional izateko ametsa, beren herrialdeetako legedia eta ohi-turak direla eta.

Qatarko Batzorde Olinpikoak 2012ko Londresko Olinpiar Jokoetan lehen aldiz sartu zituen emakumeak herrialdea ordezkatu zuen taldean. 2022ko Munduko Futbol Txapelketarako obretan 6.500 langile baino gehiago hil izana –“The Guardian” egunkariak azaleratu duenez– albo batera utzita, FIFAk antolatutako Klub Munduko Txapelketako finalaren garaikurrak ematerakoan Joaan bin Hamad Al Thani xekeak arbitro ziren emakumeei egindako mespre-

txuagatik ere seinalatu dute Qatar. Saudi Arabian, emakumeek debekatuta dute futboleko jokatzeari edo igeri egitea. Duela gutxira arte ez zuten futbol partidak ikusteko estadio batera sartzeko eskubiderik ere estatu espainolak eta frantsesak armaz hornitzen duten herrialde horretan.

Hala ere, feminismoak futbolera eta arbitrajera ere iraultza ekarri nahi du, eta gogoeta sakona eragin. Bitartean, Hanine Abou Mariamek, bere aldetik, munduko estadio onenetako belarra zapaldu nahi du. Ezohikoa dirudi, normala bihurtu arte. «Nire ametsa arbitro ospetsu bihurtzea da, baina lehenbizi marrazain gisa», nabarmendu du irribarre lotsati batekin.

